

# Bero-beroan

## Larreko Saria Joxemiel Bidadorrentzat



JOSU SANTESTEBAN

**JOXEMIEL BIDADOR** idazle eta irakasleak jasoko du Euskalerrri Irratiak ematen duen Larreko Saria. 13. edizioko sari banaketa ekainaren 7an egingo dute Barañainen (Nafarroa). Sari horren helburua euskararen erabilera sustatzea, izen ona hobetzea, transmisioa ziurtatzea eta hizkuntza ikasketa errazteko lanak saritzea da.

## HUHEZIK Euskara Batzordea izango du

**MONDRAGON UNIBERTSITATEKO** Humanitate eta Hezkuntza Zien-

tzien Fakultateak Euskara Batzordea aurkeztu berri du. HUHEZI MUKO fakultaterik euskaldunena da; euskararen ezagutza %100ekoa da, erabilera %82koa eta leialtasuna berriz, %83koa. Batzordeko kideak honakoak dira: Nekane Arratibel dekanoa, Zuzendaritzaren izenean; Karmele Perez, euskara arduraduna; Beñat Azurmendi, langileen ordezkaria eta Beñat Zamalloa, ikasleen ordezkaria.

## Itzultzaile automatikoa abian

**EUSKO JAURLARITZAKO** Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak jarri du abian euskarazko itzultzaile automatikoa sortzeko prozesua. Lehiaketa publikora deitu aurretik hizkuntzen prozesamendu automatikoan lan egiten duten bost enpresei (Eleka Ingeniaritza Linguistikoa, Emergia-Tech, InterLan System, Automatic Trans eta Translendum) informazioa eskatu eta itzulpen proba bat

jarri die. Apirilean egindako aurkezpen eta probak adituek aztertuko dituzte eta ondoren, uda aurretik, lehiaketa publikoa abiatuko dute. Lorea Bilbao Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako aholkulariaren esanetan, gaztelania-euskara eta euskara-gaztelania itzultzaileak bi urtean egin ditzakete. Itzultzaile berriak Opendrad-ak PPko Donostiako udalerako zerrendaburu Maria Jose Usandizagaren web guneko kontuak baino hobeto itzuliko ote ditu!

## EI Eren zuzendaritza batzorde berritua

**KIDE BERRIAK** honakoak dira: Asel Luzarraga, Gerardo Elorza, Ixabel Etxeberria eta Mikel Peruarena. Lau horiekin batera Fito Rodriguez lehendakariak eta Juan Ramon Makuso eta Joxemiel Bidador batzordekideek osatzen dute zuzendaritza batzordea.

## BAHEA

**Joxe Manuel Odriozolak erabili.com-en esanak:** "(.) nik uste dut estrategia abertzale guztiak bat egiten dutela funtsezko auzi batean: alegia, abertzaletasunaren adar bakar batek ere ez ditu, nik dakidala, bere jardunaren muinean, nazio-proiektuaren ardatzean, herri euskaldunaren interes soziolinguistikoa txertatzen eta aldeztzen. Nazio-eraikuntza ez da alderdi abertzaleentzat euskarazko jarduna: nolabait esan, hizkuntza menderatzailearen eskuak eraikiko luke balizko euskal herri burujabearen eraikina".

**Bilboko Orkestra Sinfonikoak Bilbon eskaini berri duen familientzako ekitaldiari buruz, Tiraka blogean:** "Euskal Herriari buruzko irudi zaharkitua ematen zuen, pertsonai euskaldunak arlote hutsak eta hizkuntzen tratamenduan ere ez zuen bat ere asmatu. (...) Ipuina kontatze-ko euskara eta gaztelania nahasten ziren, politikariek egiten ohi duten antzera, eta, nola ez, gaztelaniari nagusitasun osoa eman zitzaion".

## Galleterak

"Galleterak. Oroimen bizia" emakumeen oroimen historikoa berreskuratzeko Bilbon aurkeztu den proiektua da. Gremio hori emakumeen lanaren, euren emantzipazioaren eta euren borrokaren sinbolo da. Eta egungo emakumeen lanari buruzko iritziak eta eztabaidak piztu ditu. Iraganean aztarrika egin nahi du orainaldian eragiteko. Hala, liburuan eta bideoan, ehun urte baino gehiago dituen galleta enpresako emakume langileen lana jaso dute; Artiach fabrika, Deustun, aurreko mendean sortu zen eta egun Orozkoko multinazional baten esku dago. "Galleterak" deitzen zieten emakume horiei. XIX. mendean, Bilboko itsasadarrean bakailoa nasatik biltegiatara eramaten zuten emakumeei zamaketariak deitzen zieten, beste batzuk zirgariak ziren (errenkan gabarrak arrastan eramaten zituzten gorputzari unama

batzuk lotuta), geroago Gipuzkoako Andoainen kotoilariak ezagutu genituen eta Tabacalerako zigarrerak. Emakume horiek guztiak lan baldintza penagarrietan eta gizonen aldean okerragoetan egin zuten lan. Desberdintasuna aspaldikoa da. Proiektu horren arduradunek internet eta erakusketa ibiltariak baliatuko dituzte zabalpena emateko. Arduradunen asmoa, Deustuko Galleterak ikur hartuta, lanean emakumearen onarpena eskatzeaz gain, gaur egungo "galleterak" aurkitzea da: lan baldintzak hobetzearen alde diharduten emakumeak. Proiektu onuragarri eta txalagarri horrek ahal den laguntza publiko eta pribaturik handiena merezi du. Emakumearen eta berdintasunaren mesedetarako izango da. Baita gizar-tearen beraren mesedetarako ere.

Juan Mari Arregi

## Kolpe latza ANV, ezker abertzalea eta prozesuari

**AUTORITATEA DA** Nicolas Sarkozy Frantziako lehendakari berriaren ezaugarri nagusienetakoa. Frantziako sistema presidentzialak horretarako beta berezia ematen dio lehendakariari eta honek baliatu ere ondo baliatzen du. Sarkozyk senatua kontrolatzen du, Kontseilu konstituzionala, Ikusentzunezkoen Kontseilu Nagusia, Magistraturaren Kontseilu Nagusia eta, besteak beste, Frantziako departamentu aberatsena den Hauts-de-Seine-ko Kontseilu Nagusiko lehendakari. Eta horrekin guztiarekin, Frantziako azken 40 urteko historia ezabatu eta frantziar harrotasunaren berpiztea bultzatu nahi du, horretarako nagusiki liberalismo ekonomikoaren arauak are eta gogorrago astinduz. Frantziako lehendakari berriaren jarraera ikusita, Frantziako politika gutxi jarraitu duen edonork pentsa dezake azken 40 urte hauetan eskuina oposizioan izan dela, eskuarki eskuina izan denean erakunde nagusien gidaritzan. Egia da, hala ere, eta batez ere Maiatzaren 68ko gertakizunengatik, ezkerreko balore ugari heldu direla gaur egun arte, eta baita zabaldu ere



Nicolas Sarkozy bere garaipena ospatzen.

Europar zehar. Eta horrek guztiak ekarri du Frantzia dela gaur egun herritarrei sostengu sozialik handiena eskaintzen dien Estatu.

Bada, lorpen horietako asko jarri nahi ditu hankaz gora Sarkozyk. Ekainaren 10ean eta 17an izango dira Asanblea Nazionalerako hauteskundeak eta, inkestek dioten bezala gertatzen bada, bere UMP aterako da garaile eta orduan Gobernu eta Legebiltzerra ere (Asanblea eta Senatua) kontrolpean izango ditu Frantziaren bere birsortzea aurrera eramateko.

**KOLPE LATZA DA** Espainiako Auzitegi Gorenak ANV-EAeko 133 hauteszerrenda udal eta foru hauteskudetatik kanpo utzi izana. Eskubideen eremutik ikusita Abertzale Sozialisten

hauteszerrendak kanpo utzi izana bezain larria. Baina hori esperotakoa zen, ez ordea ANVko zerrendekin horren gogor jokatzeari. Espainian dagoen defizit demokratikoaren erakusle bat gehiago izateaz gain, bake prozesuaren egoera kamutsaren adierazle ere bada. Berriz ere, Espainiako Gobernuak ezker abertzalea presionatzeko tresna gisa erabili ditu hauteskundeak.

Auzitegi Gorenak, gainera, argi iradoki dio Espainiako Gobernuari ANV legeaz kanpo jarri behar dela. Prozedura bat ez bada bestea erabili da (Alderdi Legearena Hauteskunde Legearen ordez); Batasunaren kasuan biolentziaren gaitzespena giltzarri bazen, ANV gaitzespen hori badue- nean Batasunaren tresna izatea leporatzen zaio... Zirrikitu judiziala sortzen da eta kito. Auzitegi Konstituzionalak zuzendu ezean, ondorioa larria da ikuspegi demokratikotik, bai suposatzen duen eskubide urraketagatik, bai herritarren borondatea desitxuratu egiten delako (Zer gertatuko da orain, adibidez, Nafarroako Legebiltzarraren?). Prozesuarekiko, aldiz, bere heriotza ote da?

gure!  
arteak  
euskaraz

